

Hartu guztia, oporretara goaz!

Badator uda, eta oporretan joateko asmorik baduzue, gauza asko aurreikusi eta planifikatu beharko dituzue: nora joan, nola, zer eraman, zer prestatu.... Edo agian ez, agian nahiago duzue plangintzarik egin gabe bidaiak erakusten dizuen bideari jarraitzea.

Dena dela, sekuentzia honetan ariketa hauek proposatzen dizkizugu:

- Audioa entzun eta erantzun egokia aukeratu.
- Testu bat irakurri eta formei erreparatu.
- Aholkuak emateko moduak landu.
- Seguru bidaiatzeko aholkuen dekalogoia osatu.



1. Nola bidaiatzea gustatzen zaizu?



Entzun Josu Iztuetari egindako elkarrizketa, eta aukeratu jarraian aipatzen direnak egia ala gezurra diren.




<https://labur.eus/ztzWR>

	Egia	Gezurra
1- Asko irakurtzea ere bada bidaiatzeko modu bat, Iztuetaren ustez.		
2- Pertsona batzuek nahiago dute aurretik ezer ez jakin bisitatuko dituzten tokiei buruz.		
3- Josu Iztuetak ez du ezer irakurtzen toki berri batera joan baino lehen.		
4- Tolosaldeko gida-liburua ingelesez eta frantsesez argitaratu dute.		
5- Gida-liburuan ez dute taberna edo jatetxe zehatzik aholkatzen.		

2. Seguru bidaiatzeko aholkuak

Irakurri bidaia-asegurua kontratatzeko aholku hauek eta erreparatu bertan erabiltzen diren formei.

BIDAIA-ASEGURUA KONTRATATZEAN...

- **Gorde ezazu** bidaiari buruzko dokumentazio guztia: publizitatea, aurrekontua, kontratua, fakturak...
- **Eskatu** beti kontratua idatziz.
- **Ziurtatu** bidaiaren erreserban ezinbesteko informazio guztia **agertzen dela** (prezioa, datak, garraioak, ostatuak...).
- **Egiaztatu** kontratuan bidaiaren baldintza guztiak **jasotzen direla**.
- **Gogoan izan ez duzula zure gain hartu beharko** aldez aurretik jakinarazi ez dizuten kostu gehigarririk.
- Internet bidez kontratatu behar baduzu, **egiaztatu** webgunea **segurua dela**.
- **Konpara** itzazu agentzia bat baino gehiago, eta **irakurri** beste pertsonen iritziak.

Argazkia: Pixabay
Iturria: Kontsumobide aldizkaria (Moldatua)

AHOLKUAK

Aholkuak emateko modu asko daude eta gehienetan aditz partizipioa erabiltzen da, baina badira beste modu batzuk ere:

- **T(Z)EA**
Interesgarria da ibilbidea aldez aurretik prestatzea.
Komeni da euritarako arropa eramatea.
- BEHAR** aditz-lokuzioa daramate aditzak:
Pirinioetara joateko oinetako egokiak eraman behar dira.
Argaldu nahi baduzu, jateko ohiturak aldatu beharko dituzu.



GOGORATU

Aholkuak emateko batzuetan agintera erabiltzen da:

- *Etxea txukun mantendu nahi baduzu, kendu oinetakoak sartu baino lehen.*
- *Zoazte oinez, autoa han aparkatzea zaila da eta.*
- *Jar itzazu, ken ezazu...*
- *Galdeiozu, esaiozu, emaidazu...*



Binaka azaldu ikaskideari zuen bidaietan inoiz arazorik edo ezbeharririk gertatu zaizuen. Eman aholku bat ikaskideak azaldutako egoerari erantzuteko.

Adib:

Hegazkinera sartzeko unean konturatu nintzen nortasun agiria iraungita (kadukatuta) neukala. Hegazkinera igotzen utzi zidaten, baina ezusteko handia hartu nuen.

Hurrengoan, bidaiatu baino lehen, dokumentazioa egunean daukazula begiratu.



Talde txikitan, oporretan seguru ibiltzeko 4-5 aholku pentsatu eta idatziz jaso.

Nahi baduzue, zuen bidaietan gertatutakoak kontuan hartu eta berriro ez gertatzeko aholkuak eman ditzakezue, aurreko ariketan egin duzuen bezala.

- Bidaia prestatzeko/kontratatzeko aholkuak...
- Bidaian bertan kontuan hartzekoak...
- Maletak prestatzerakoan...
- Osasun kontuei dagokionez...
- Diru kontuak...
- Dokumentazioa...



Seguru bidaiatzeko aholkuak



4. Aholku-dekalogoia



Talde txikian eman besteei zuen aholkuak eta adostu horietatik zein diren dekalogoan sartuko dituzuen hamar aholku garrantzitsuenak.

**OPORRETAN SEGURU IBILTZEKO
AHOLKU-DEKALOGOIA**

- 1- _____
- 2- _____
- 3- _____
- 4- _____
- 5- _____
- 6- _____
- 7- _____
- 8- _____
- 9- _____
- 10- _____

Argazkia: Pixabay

ERANTZUNAK

1. Nola bidaiatzea gustatzen zaizu?

	Egia	Gezurra
1- Asko irakurtzea ere bada bidaiatzeko modu bat, Iztuetaren ustez.	X	
2- Pertsona batzuek nahiago dute aurretik ezer ez jakin bisitatuko dituzten tokiei buruz.	X	
3- Josu Iztuetak ez du ezer irakurtzen toki berri batera joan baino lehen.		X
4- Tolosaldeko gida-liburua ingelesez eta frantsesez argitaratu dute.		X
5- Gida-liburuan ez dute taberna edo jatetxe zehatzik aholkatzen.	X	

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Gaurkoan. Gaurko saioan.

Zuenetik gertu. Zuen etxetik, lanetik, ikastetxetik (zuek zaudeten leku horretatik) hurbil.

Dioten horretan. Esaten duten horretan.

Asko ibilitako norbait. Asko ibili izan den norbait.

Hautu bat da. Aukera, erabaki bat da.

Nirea bezain zilegi. Nirea baliagarria bada, bestea baita ere. Nirea bezain baliagarria da.

TRANSKRIPZIOA

(00:03:49)

Esataria. Gure bidaiatzeko tartea zabalduko dugu hemen, Ataria irratian, gaurkoan, Josu Iztuetaekin. Ongi etorri, Josu.

Josu Iztueta bidaiaria. Kaixo.

Esataria. Zer moduz? Ondo?

Josu Iztueta. Ondo. Bai.

Esataria. Ederki. Bai.

Josu Iztueta. Zuenetik gertu azken boladan.

Esataria. Bidaiatzea esna zaudela amets egitea ere badela dioten horretan, bereziki hartzen du indarra agian esaldi honek garai hauetan Josu, ez?

Josu Iztueta. Bai. Lehen ere hala izango zen seguru asko. Askok ibilitako norbait baino bihurtuagoa (bidaiatuago) egon liteke etxetik mugitu gabe, ba adibidez, asko irakurri duen bat edo. Bai.

Badago jendea leku batera bidaiatu baino lehen ezer irakurri nahi ez duena hari buruz, dena sorpresa izan dadin baina nire kasuan ni saiatu naiz, saiatu izan (du) naiz joan aurretik asko irakurtzen, bertan ere ahal dudana gehiena informatzen, eta etorritakoan, geratu zaizkidan zalantzak argitzen. Niretzat, bueno, laneko erramintak (lanabesak) ere izan dira gidak, baina ulertzen dut ere bai jende batek nahiago izatea "ba, bueno, iritsiko naiz Bonbaira (Mumbaira), eta Bonbaira edo Parisera edo Burgosera. Eta deskubrituko dut, deskubrituko dut, edo sorpresak (ezustekak), sorpresa bidez, edo ezjakintasunetik disfrutatuko (gozatuko) dut bidaia". Beste modu bat da. Bitxia da.

Esataria. Baina tokatu zaizu zuri? Zuri zuzenean ez. "Ez. Nahiago dut nik..."

Josu Iztueta. ...bai...

Esataria. ...hara joan ezer jakin gabe eta..." Tokatu zaizu.

Josu Iztueta. Bai. Nik etxean eduki ditut milaka liburu, gida, mapa... Eta norbait, bueno, ez dakit nora doala jakin, eta eskaini eta "Hi. Hola eta hola. Nahi baduk nik bazeuzkaat (badizkiat) hau, eta hau eta hau. Ez dizkiat behar eta..." Eta "Ez. Ez. Nik nahiago dut ezer jakin gabe joatea [joan]". Eta bueno....

Esataria. Bai. Bai.

Josu Iztueta. Bere hautu bat da eta...

Esataria. Bai. Bai.

Josu Iztueta. ...eta nirea bezain zilegi.

Esataria. Baina normalean egiten duguna da irakurri lurralde horri buruz lurralde horretara joan aurretik. Gainera egiten dugu gogoz bezala, ez?, gustatzen zaigulako ea zer topatuko dudana han, eta bestea eta... Dena den, hor gauza asko badaude desberdintzeko, e! Gauza bat da datu objektiboak ez?, lurralde bati buruz, eta gero iritzi, iritzia. Gaur egun oso modan jarritako horiek: "Ba nik hau bisitatuko nuke han halako hura dagoelako, eta bat eta beste". Hor badaude desberdintzeko. E, goazen pixka bat horri begira jartzera.

Josu Iztueta. Guk idatzia dugu Tolosako gida bat ingelesez. Eta jartzen dugu... "Eta Tolosan ez duzu galdu behar bertako gastronomia". Bertako bistak, erreka eta hori denak ikusiko dituzte berdinak. O sea, (alegia), begiratuko dute zumardi txikitik edo Zerkausia ikusten dela. Baina non babarruna jan, edo non pintxoak jan... Ni joaten baldin banaiz... Bueno, orain itxita daude tabernak eta. Ni joaten baldin banaiz Orbelara, edo lkatzara, berdin da, Sesenta y Seisera edo Irrintzira... Bueno, han jan, han jaten ditudanak probatuko ditut, baina beste 50 tabernetakoak ez baitut [baititut] jan ezin dut esan "No te pierdas"... Erderaz ari naiz, ingeles, atzerriko hizkuntzetan, ba ez dakit, frantsesez: "N'oubliez pas ez dakit zer, ez dakit zer". Bueno, hori oso subjektibo da.